



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko martxoaren 23a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa. Foru Lege proposamena bazter utzia (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34.2.b) artikulua indargabetu dadin susta dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen ditu Hezkuntza eta Osasun departamentuek Sarrigurengo osasun etxea eraikitzean eta 0tik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzean eginiko kudeaketa eta plangintza. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen konpon dezan Sarrigurengo 0tik 3 urtera bitarteko zikloaren eskaintzaren auzia. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hornitzaileekiko betebeharrak bete ditzan eta laguntzak eta dirulaguntzak ordain ditzan, merkatua eta kontsumoa sustatze aldera. onvergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan ekimen pribatura bideratu oinarritzko osasun laguntzako gaixorik. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da itunpeko ikastetxe guztiak ikuska ditzan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, jakiteko zenbateko kostua izanen lukeen San Juan de Dios Ospitalearekin hitzartuta duen zerbitzua emateak. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Julio Caro Baroja Museo Etnologikora bisitak egin ahal izateko programa bat presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

- Adierazpen instituzionala, Nafarroako zezen-festa tradizionalak Nafarroako Foru Komunitateko kultur ondare immaterial gisa duten balioa aitortzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, Arraza Bereizkeriaren Ezabaketari buruzko Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Auzitegi Gorenak N-111 errepideko bide-seinaleak, Zizur Nagusiko tartean, elebitan jartzeari buruz emandako epaiari buruzkoa. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Ondarearen gaineko Zerga kendu edo jaisteari buruzkoa. Ion Erro Armendáriz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Estrena 2010 azokari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Lor aintziraren aldeko ingurumen ondorioen adierazpenari buruzkoa. María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako 2006ko aurrekontuetan Orreagan kulturaren eta turismoaren arloan inbertsioak egiteko aurreikusitako maileguari buruzkoa. Román Felones Morrás jaunak egina (16. or.).
- Galdera, jakiteko zer dela-eta ezin izan den garaiz kitatu mendekotasunari aurre egiteko laguntzarako ezarritako zenbatekoa. Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programari jarraikiz 2009an betetako gastuari buruzkoa. Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (18. or.).
- Galdera, genetikoki eraldatutako artoaren laborantzari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko dermatologiako espezialisten kopuruari buruzkoa. Ana Figueras Castellano andreak egina (20. or.).
- Galdera, azken bost urteotan parke eolikoetan hildako hegaztien kopuruari buruzkoa. Ion Erro Armendáriz jaunak egina (21. or.).
- Galdera, sario-populazioa jaitsarazi duen keratokonjuntibitis-agerraldia dela-eta hartutako neurriei buruzkoa. Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (21. or.).
- Galdera, azken hiru urteotan maila ertaineko eta goi mailako ikasketetan eta lanbide heziketan matrikulatu diren ikasleei buruzkoa. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Iruñerrian abiadura handiko trenak ukitutako lursailak urbanizatu eta berrantolatzeko proiektuari buruzkoa. José Andrés Burguete Torres jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Jakako autobiako Izko-Judasen Benta bideuneari buruzkoa. José Andrés Burguete Torres jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Leozko lurzati-berrantolamenduko obrak bukatutzat emateko arrazoiei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (24. or.).
- Galdera, arte eszenikoak sustatzeko programei buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (25. or.).
- Galdera, “Escena” dantza-jaialdiari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (26. or.).
- Galdera, “Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia” programari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (26. or.).
- Galdera, “Punto de Vista” Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (27. or.).
- Galdera, “Villa de San Adrián” pop-rock lehiaketari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (28. or.).
- Galdera, “Julián Gayarre” eta “Pablo Sarasate” kantu eta biolin lehiaketei buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (28. or.).
- Galdera, “Dantza, eskolan” programari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (29. or.).
- Galdera, “Bideko abesbatzak” programari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (30. or.).
- Galdera, “Nafarroako Komikiaren Nazioarteko Erakusketa” programari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (30. or.).
- Galdera, “Nafarroako Filmotekaren Zinema Zikloak” programari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (31. or.).
- Galdera, “Cámara” programari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (32. or.).
- Galdera, “Nocturna” programari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (32. or.).
- Galdera, “Musika, museoan” programari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (33. or.).

- Galdera, sormen programei buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (34. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko erakunde autonomoek antolatzen dituzten sariketei buruzkoa. Samuel Caro Sádaba jaunak egina (34. or.).
- Galdera, Auzitegi Gorenak Zizur Nagusiko bide-seinaleak direla-eta emandako epaiari buruzkoa. Galdera erretiratzea (35. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak kontratazioetarako dituen kontusailak blokeatuak izateko arrazoiei buruzkoa. Roberto Jiménez Alli jaunak egina (36. or.).
- Galdera, jakiteko zer dela-eta gerarazi dira mediku egoiliarren (BAME). kontratazioak. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (36. or.).
- Galdera, jakiteko noizko aurreikusten duen Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatzea Estatuarekin, A-21 errepidea Erronkari ibarrarekin lotzeari dagokiona ebazteko. José Andrés Burguete Torres jaunak egina (37. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua modu egokian al dagoen 2010eko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasotzen diren Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Ongizate departamentuetako kontusailak bermatu ahal izateko. Ana Figueras Castellano andreak egina (38. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa.

FORU LEGE PROPOSAMENA BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak 2010eko martxoaren 3an Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpen negatiboa, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez eta 2008ko maiatzaren 12ko Batzordeetako irizpen negatiboei buruzko lehendakariaren erabakiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea foru lege proposamen hori baztertu izanaren berri baduela.
2. Agintzea aipatu irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Irizpen negatiboa

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak 2010eko martxoaren 3an egindako bileran onetsia

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen. Foru Lege proposamen horri dagokionez inolako testurik onetsi ez denez, aipatu Foru Lege proposamena bazter utzia gelditzen da.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34.2.b) artikulua indargabetu dadin susta dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34.2.b) artikulua indargabetu dadin susta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 34. artikulua, zeinak udalerriek osa-

sun-alorrean dituzten eskumenak aipatzen baititu, honakoa dio, hitzez hitz, 2. idatz-zatiko b) letran:

“b) Kontsultategi lokalak edo laguntzaileak irekitzea, birmoldatzea edo/eta hornitzea, horien kontserbazioa eta mantenimendua bermatuz”

Errealitatea da ezen osasun-etxeen mantentze-lanak, kontserbazioa eta abar Osasun Departamentuaren eskumena direla, eta ez, ordea, osasun-kontsultategiak. Kontsultategi horiek herri eta kontzeju oso txikietan daude, eta haien aurrekontuak oso eskasak dira, eta, nahiz eta Departamentuaren dirulaguntzak jasotzen dituzten mantentze-lan horietarako, ekipamendurako eta abar, errealitatea da dirulaguntzak ez duela gehienetan estaltzen gastua.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

a) Azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 34. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra indargabetzea susta dezan.

b) Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezen aldaketa horretan ezar dadin herrietako kontsultategien mantentze-lanak, ekipamendua eta abarrak Osasun Departamentuaren kargura izanen direla.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen ditu Hezkuntza eta Osasun departamentuek Sarrigurengo osasun etxea eraikitzean eta 0tik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzean eginiko kudeaketa eta plangintza.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baititu Hezkuntza eta Osasun departamentuek Sarrigurengo osasun etxea eraikitzean eta 0tik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzean eginiko kudeaketa eta plangintza.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Eguesibarko Sarriguren herriak jadanik 8.000 biztanle baino gehiago dauzka.

Urbanizazio berri bat da, Iruñerrian azken urtetan sortua, eta aurreikuspena da etorkizun hurbilean bertako gaur egungo biztanleria bikoiztu egingen dela.

Horregatik, urbanizazio berri honen sorrerarekin batera, beharrezkoa gertatu da oinarritzko dotazio publikoak eraikitzeari ekitea (sarbideak eta komunikazioak, hezkuntza-dotazioak, osasun-arlokoak, sozialak eta kulturalak).

Eta hain zuzen arlo honetan da tamalgarria eta onartezina administrazio eta sozietate publiko eskudunek (Nafarroako Gobernuak, udalak, Nasuinsa sozietate publikoak) izandako atzerapena

dotazio horiek egiteko beren betebeharrari heldu diotenean.

Esate baterako, oinezkoentzako eta txirrindularientzako Sarrigurenko sarrera- eta irteera-bideak oraindik konpondu gabeko anabasa dira.

Halaber, osasun-etxeak bere obrak hasi berriak dauzka, obren hasiera 2008ko udazkenean iragarri bazen ere. Hori amaitu bitartean, Sarrigurengo 8.000 biztanle baino gehiago kolapsatzen ari dira bai Mendillorriko osasun-etxea, bai haien aurreko bizitokietakoak ere.

Baina 0-3 urte bitarteko haur eskola publikoaren eraikuntza da Sarrigurengo bizilagunei kalte oso handia egiten ari zaien eskandaluzko aurreikuspen- eta jardun-falta.

Nasuinsak, Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoak, hiru haur-eskola eraikitze konpromisoa hartu zuen. Lehena, 2005ean, urbanizazioaren lehen fasea egiten ari zirenean.

Alabaina, gaur egun ezein haur-eskola publiko ez da funtzionatzen ari. Nasuinsak 2008ko udazkenerako iragarri zuen, berriro ere, 0-3 urte bitarteko lehen haur-eskolarako obren hasiera, halako moduan non bukatuta egonen baitzen 2009-2010 ikasturtearen hasierarako.

Baina obrak ez ziren hasi aurreikusitako hasiera baino urtebete geroago arte, eta ez dira bukatuta eta erabilerarako prest egonen 2011-2012 ikasturtera arte.

Hori guztia kalte larria eragiten ari zaie Sarrigurengo gurasoei, eta beren burua behartuta ikusten ari dira Maristen ikastetxea bezalako ikastetxe pribatuetan postu bat lortzen saiatzera.

Alegia, administrazio publikoen aurreikuspenik eta gaitasunik ezarengatik, Sarrigurenen irakaskuntza pribatuak osoki eskaintzen ditu bere postuak, eta aldi berean, 0-3 urte bitarteko haur-eskola publikoak ezin izanen du hori egin 2011-2012 ikasturtera arte.

Eta, bitartean, Hezkuntza Departamentuak jakinarazi du behin-behineko soluzio bat izan litekeela Maristen ikastetxeko ikasgelak alokatzea; hots, itunduriko ikastetxe pribatukoak.

Horrek guztiak erakusten du, edo Nafarroako Gobernuak eginiko plangintza negargarria izan dela, edo axolagabekeria errudenez jokatu duela hezkuntza-sistema publikoari dagokionez dituen erantzukizunetan, eta itunduriko sare pribatuaren mesedetan.

Nolanahi dela ere, gertaturikoa oso larria da, eta erantzukizun politikoak harrarazi behar ditu.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatu egiten dituela Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Sarrigurenen 0-3 urte bitarteko zikloari dagokionez egin dituen kudeaketa eta plangintza. 0-3 urte bitarteko haur-eskolekin izandako aurreikuspen eta plangintza negargarria kalte larria egiten ari zaie hezkuntza-sistema publikoari eta herriko familiei.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatu egiten duela Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak Sarrigurengo osasun-etxea eraikitzeari dagokionez eginiko kudeaketa eta plangintza.

Dotazio horren eraikuntzan izandako atzerapen justifikaezina kalte larria egiten ari zaie Sarrigurengo bizilagunei.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio erabateko premiaz egitea Eguesibarko Sarriguren herrian beharrezkoak diren dotazioak (hezkuntzakoak, osasunekoak, kulturak, sarbideak eta komunikazioak...).

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen konpon dezan Sarrigurengo 0tik 3 urtera bitarteko zikloaren eskaintzaren auzia.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen konpon dezan Sarrigurengo 0tik 3 urtera bitarteko zikloaren eskaintzaren auzia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa

aurkeztu dute, Osoko Bilkuran lehenbailehen eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

1998ko urriaren 30ean sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Eguesibarko Udalak lurzoru eta etxebizitzaren alorrean lankidetzan aritzeko akordioa. Sinatzaileak garai hartako lurraldearen antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilari Yolanda Barcina eta Eguesibarko alkate-lehendakari José María Senosiáin Ibáñez izan ziren. Orduko kontseilari andreak esaten zuen ezen akordioa sinatzea pozgarria zela, akordio hartan erdietsitako plangintza-maila handiarengatik, eta halaber zioen Mendillorri bezalako akatsak ez egitea ekarriko zuela, zeren eta Sarrigurengo zerbitzuak eta azpiegiturak, kalitate handikoak izateaz gain, akordioan zehaztuta baitzeuden. Orobat zehaztuta zegoen noiz abiaraziko ziren, bai eta administrazio bakoitzak ipini beharreko alde ekonomikoa ere.

Hezkuntzari dagokionez, akordioak xedatzen zuen haur eta lehen hezkuntzako bi ikastetxe eraikiko zirela, bai eta 0-3 urte bitarterako haur-hezkuntzako bi ikastetxe ere. Bi ikastetxe horietarako

ehuneko 20ko esku-hartzea aurreikusten zen, eta beste bietarako, ehuneko 80koa.

Sarrigurengo biztanleria hazi egin da, eta esku-hartzearen ehunekoak gaintzen ditu; alabaina, zenbait alorretan, hala nola hezkuntzarenean, osasunarenean eta abar, dotazioak ez dira gauzatzeko.

Hezkuntza Kontseilariak 2006ko otsailaren 1ean baieztatu zuen ezen 0-3 urte bitarteko ikastetxeetako bat funtzionamenduan egonen zela 2007-2008 ikasturterako, eta haur eta lehen hezkuntzako, 2008-2009 ikasturtean. Epeak igaro ziren, eta Hezkuntza kontseilariak konpromiso berriak iragarri zituen: 0-3 urte bitarteko ikastetxe-rako obrak 2008ko maiatzaren 31n hasiko ziren, zehatz-mehatz.

Gaur, 2010eko martxoaren 10ean, ikusten dugu Sarrigurenek 8.000 biztanle baino gehiagoko populazioa daukala, eta eskola-dotazioak mugatzen direla haur eta lehen hezkuntzako 675 ikaspostuko ikastetxe batera, eta eskola- nahiz osasun-dotazio publikorik ezak Sarrigurengo biztanleak inguruetako beste ikastetxe batzuetara jotzera behartu dituela.

Bai Nafarroako Gobernuak bai Eguesibarko Udalak erakutsitako plangintzarik eza, kudeaketa kaskarra eta zerbitzu publikoaren aldeko inolako borondaterik eza, 0-3 urte bitarteko haur-eskola publiko bat Sarrigurengo Maristen ikastetxearen instalazioetan ezartzeko aukera proposatzearen ideia "berriaren" sorburu dira. Horretarako argudio gisa aipatzen dira denborarik eza eta adierazitako ikastetxeak helburu horretarako toki aproposa edukitzea.

Hori bai zinismoa, horrelako soluzio bat proposatzea.

Dotazio publikoen eraikuntzaren atzerapena administrazio eta sozietate publikoei egotzi beharrezkoa da. Nori egin dio mesede harturiko konpromisoak betetzeko inolako borondaterik ez izate horrek? Dударik gabe, irakaskuntza pribatuari eta itunduari. Nor irten da galtzaile? Argi dago: Sarrigurengo biztanleak.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio premiaz eta modu publikoan ebatz dezala Sarriguren (Eguesibar) herrian 0-3 urte bitarteko zikloaren eskaintzaren afera, eskaintza hori 2010-2011 ikasturtean gauzatzeko behar diren urratsak eginez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio erabateko premiaz egitea Eguesibarko Sarriguren herrian beharrezkoak diren eta hitzartuta dauden dotazioak (hezkuntzakoak, osasunekoak, kulturalak, sarbideak eta komunikazioak).

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio edozein entitate publikorekin sinatzen dituen hitzarmenak eta dotazio-obrak zorrozki errespetatu ditzan eta ongi planifika eta egin ditzan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hornitzaileekiko betebeharrak bete ditzan eta laguntzak eta dirulaguntzak ordain ditzan, merkatua eta kontsumoa sustatze aldera.

ONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea onvergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hornitzaileekiko

betebeharrak bete ditzan eta laguntzak eta dirulaguntzak ordain ditzan, merkatua eta kontsumoa sustatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari

ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Likidezirik eza egiazko problema bat sortzen ari zaie Nafarroako enpresei eta familiei.

Nafarroako Gobernuak krisiari aurre egiteko zenbait neurri erabaki izan ditu, Nafarroan merkatuaren eta kontsumoaren pizgarri suerta daitezen; alabaina, neurri horietako batzuek likidezia-zailtasunen eragina jasan dezakete, hain zuzen ere.

Foru Administrazioaren jardunak Nafarroako merkatuan eragin nabarmena izaten du; horregatik, Nafarroako Gobernuak bere betebeharrak eta laguntzak nahiz dirulaguntzak ordaintzeari dagokionez izandako portaerak ondorio muntaduna izan lezake Nafarroako enpresen eta familien egoeran.

Berankortasuna aprobeztatzea likidezia lortze aldera jokabide arbuia garria izaki, Administrazioak inola ere ezin du eta ez du zilegi honako itxura

hau ematea; hots, bere betebeharren betetzean berandutzeak abantaila ekonomikoa ekartzen diola.

Beraz, kontua ez da bakarrik Nafarroako Gobernuari exijitu behar zaiola laguntzen eta dirulaguntzen ordaintzetan legezko eta erregelamenduzko epeak betetzea, batez ere familiarik eta sektorerik behartsuenengan krisiak dituen eraginak samurtzera bideraturiko laguntzak tartean daudenean, baizik eta CDNkook pentsatzen dugula administrazio publikoak behartuta daudela beren betebeharren betetze puntualaren bitartez eredugarri izatera eta, gainera, beren portaerekin gizartearen gainerakoari konfiantza ematera.

Hori dela-eta, CDNk ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromisoa har dezan hornitzaile ezberdinekiko bere betebeharrak 30 egun baino gutxiagoko epean betetzeko, eta laguntzak nahiz dirulaguntzak kobrantza-eskubidea dagoenetik gehienez ere 60 eguneko epean ordaintzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri horien jarraipenerako txosten bat presta dezan, eta Legebiltzar honi bidal diezaion urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan ekimen pribatura bideratu oinarrizko osasun laguntzako gaixorik.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dezan ekimen pribatura bideratu oinarrizko osasun laguntzako gaixorik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Berriki San Juan de Dios Ospitalearekiko itunaren kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena jaso da, 2008ko ekitaldiari buruzkoa. Txosten hori Nafarroako Parlamentuak eskatu zuen, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkartearen ekimenez.

Txosten horretan, Comptos Ganberak esaten digu kostua igo dela 16,46 milioi eurora, eta horietatik ehuneko 92 ospitaleratze-laguntzari dagokio, eta gainerako ehuneko 8, laguntza anbulatorioari; hots, oinarrizko osasun-laguntzari.

Gaixoak San Juan de Dios Ospitalera igortzearen arrazoi nagusia izan daiteke Osasunbidearen baliabide-eskastasuna. Eskastasun hori egozten zaio ustezko plangintza-falta bati.

Baliabide-eskastasun hori suposatu egin beharrekoa da, ez baitaukagu ez aurretiazko ezein azterlanen konstantziarik ez eta Osasunbidearen baliabide berekien inolako plangintzari buruzkorik ere, zeinek agerian utziko bailituzkete osasun-erlako beharrianak eta, beraz, ituntzearen justifikazioa.

Nafarroako Ezker Batuaren iritziz, ustezko plangintzarik eza UPNren Gobernuak antolatua da, eta ulertzen dugu, pentsatzen baitugu bat datorrela osasun-zerbitzuen zati handi bat ekimen pribatura bideratzeko interes neurrigabe batekin; hain zuzen, ekimen publikoak eman ahal dituen

osasun-zerbitzuei buruz ari gara, zeinak itundu egiten baitira, osasun-zerbitzu pribatua aberaste aldera.

Une honetan, eta Comptos Ganberaren bi txostenetan oinarriturik, esan dezakegu UPNren Gobernuak gurutzatu egin duela soilik ospitaletako gaixoak bideratzearen muga, eta itunean oinarrizko osasun-laguntza sartu duela. Horrenbestez, oinarrizko osasun-laguntzaren privatizazioari ekin zaio.

San Juan de Dios Ospitalean egin du, eta egin zuen, halaber, Klinika Unibertsitarioarekin harako hitzarmen hura izenpetu zuenean, zeinaren bitartez langileei eta haien ahaideei zentro pribatu horrek ematen baitie oinarrizko osasun-zerbitzua.

Nafarroako Gobernuak interes pribatuen alde gobernatzearen aurka gaude bete-betean: jakinaren gainean egiten du, aurretiazko azterlanik gabe eta plangintza-falta faltsu bat tarteko. Jabetzen gara Gobernuak ongi planifikaturiko helburu batzuk dituela, osasunaren arloko sektore pribatuaren alde jokatzearen ildokoak.

Horrenbestez, ondoko erabaki-proposamena aurkeztzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du ez dezan oinarrizko osasun-laguntzako ezein gaixo bideratu ekimen pribatura, eta gaixo horiek osasun-etxeen sare publikoan artatuak izan daitezten.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da itunpeko ikastetxe guztiak ikuska ditzan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita itunpeko ikastetxe guztiak ikuska ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana

Figueras Castellano andreak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak 88. artikuluan ez bairik gabe adierazten du aginduzkoa dela itunduriko ikastetxe publiko edo pribatuek famililengandik inolako zenbatekorik ez jasotzea doakoak diren irakaskuntzak ematearen alde.

Jakin ahal izan da arau hori zenbait ikastetxe itundutan ez dela errespetatzen. Jakin ahal izan da ikasleen familiengandik dirusarrerak jasotzeko erabilitako formulak ugariak eta askotarikoak direla, bai eta oso ohikoak, eta kontzeptu ezberdinengatik ordainduak.

Foru parlamentarien elkarte honetatik ulertzen dugu gobernuak jokabide horien jarraipen zorrotza egin behar duela eta, betiere, praktika horiek saihestu behar dituela.

Arrazoi horiengatik, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikasturte honetan zehar Foru Komunitatean itunduak diren ikastetxe guztien ikuskapen bat egin dezan, familiei eginiko kobrantzen errealitatea ezagutze aldera.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean.

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, jakiteko zenbateko kostua izanen lukeen San Juan de Dios Ospitalearekin hitzartuta duen zerbitzua emateak.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, jakiteko zenbateko kostua izanen lukeen San Juan de Dios Ospitalearekin hitzartuta duen zerbitzua emateak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

sean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak, Ezker Batua foru parlamentarien elkartearen ekimenez, Comptos Ganberari eskatu zion txosten bat egin zezala Nafarroako Gobernuaren eta San Juan de Dios Ospitalearen arteko 2008rako osasun-itunari buruz.

10/1990 Foru Legeko 78.2 artikulua honakoa dio: "Hitzarmenek nahitaez ondoko ezaugarri hauek bildu beharko dituzte: a) Hitzarmenaren xede diren zerbitzu, baliabide eta laguntzak, lortu nahi diren helburuak, zenbakiak agertuz, zehaztuta".

Comptos Ganberak bere txostenean adierazi du bere lanarentzat muga izan dela hitzarmenaren helburuak neurtu ahal izateko adierazlerik eza, hitzarmenaren helburuak zenbatetsi gabe zeudelako. Zehazki, honakoa esan du: "Ez dira zehazten erdietsi nahi diren helburu zenbatetsiak"; beraz, osasun-hitzarmenaren eraginkortasuna ezin da balioetsi.

Gogoan izanik legearen artikulua hori ez dela betetzen, eta ahaztu gabe hitzarmen hori 2008an

Nafarroako gizarteari 16.461.909 euro kostatu zaiola, Ezker Batuaren foru parlamentarien elkarteak honako erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroakok Gobernua premiatzen du bi hilabeteko epean azterlan bat egin dezan, kalkulatzeko zer kostu izanen

lukeen gaur egun San Juan de Dios Ospitalearekin hitzartua duen zerbitzua baliabide berekien bidez emateak.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Julio Caro Baroja Museo Etnologikora bisitak egin ahal izateko programa bat presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lizarrako Julio Caro Baroja Museo Etnologikora bisitak egin ahal izateko programa bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Julio Caro Baroja museo etnologikoaren behin-behineko egoitzan herritarrentzako bisita-egitarau bat gauzatu dezan.

Zioen azalpena

Nafarroak kultur ondare garrantzitsua osatu du denborarekin, eta museoak horren adierazgarri dira. Urteak iragan ahala, Nafarroako Museoari eta Iruñeko Elizbarrutiko Museoari beste erakunde publiko nahiz pribatuak, zibilak eta erlijiosoak gehitu zaizkie pixkanaka, foru erkidegoko zati handi batera zabaltzen den sare bat osatu arte.

Museoen ugaltzearen ondorioz eta sektorea antolatu eta sustatzeko beharraren eta museoen arloan izandako aldaketen ondorioz, duela gutxi Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi du Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legea.

Aipatu sarean aurreikusitako museoetako bat, talde politiko eta kulturaren arloko sektore guztien onespina duena, Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa da. Gaur egun, museo horrek 12.000 pieza ditu, bai eta 25.000 iruditik gora duen fototeka bat eta biblioteka monografiko interesgarri bat ere.

Museo horren historiak gorabehera asko izan ditu. Iratxeko monasterioan jartzeko hasierako aurreikuspenak topo egin zuen monasterioa paradore nazional bihurtzeko erabakiarekin. Jarduera hori abian da gaur egun. Behin-behinekoz, museo Lizarrako Merkatondoa industrialdeko nabe batean jarri zen, eta hantxe jarraitzen du bere barne-jarduerak garatzen, nahiko baldintza egokietan, Legebiltzarreko Kultura eta Turismo Batzordeak ikusi ahal izan zuenez, horretarako eginiko berariazko bisitan.

Museo hori Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan behin betiko instalatzeko erabakiak Parlamentuaren gehiengoaren oniritzia izan zuen, halaxe deliberatu baitzuen Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 12an onetsitako mozioaren bitartez.

Azkenik, Nafarroako Parlamentuak, bere kideen gehiengoaren bidez, 75.000 euroko kontusaila ezarri zuen 2010erako Nafarroako aurrekontu orokorretan, helburu hori erdiestera bideraturiko aurretiazko azterlanei ekin ahal izateko.

Hala ere, eta kontuan izanik instalazio hori ez dela behin betikoa izanen hemendik zenbait urtera arte, eta museoaren bildumak kontserbazioari eta interesari dagokienez egoerarik onenean daudela herritar guztiek haietaz gozatu ahal izateko, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honoako erabaki-proposamena aurkezten

du, Kultura eta turismo Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarrentzako bisita-egitarau bat gauzatu dezan Lizarrako Julio Caro Baroja museo etnologikoaren behin-behineko egoitzan, behar bezala ezarriko diren baldintzetan.

2. Egitarau hori indarrean egon beharko da 2010eko irailaren 1ean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Adierazpen instituzionala, Nafarroako zezen-festa tradizionalak Nafarroako Foru Komunitateko kultur ondare immaterial gisa duten balioa aitortzekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du Nafarroako zezen-festa tradizionalak Nafarroako

Foru Komunitateko kultur ondare immaterial gisa duten balioa.”

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Arraza Bereizkeriaren Ezabaketari buruzko Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du edonolako arrazakeria, eta aitortzen du kulturarteko hezkuntza beharrezkoa dela arrazakeriaren ezabaketaren aurkako borrokan aurrerapausoak emateko, guztiok baldintza duinetan bizitzeko tokia izanen dugun gizarte batean.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu krisia eta segurtasunik eza immigrazioarekin

lotzen dituzten diskurtsoak, eta aitortzen du beharrezkoa dela biztanle etorkinak gure elkartearen kide eta osagai gisa hartzea.

3. Nafarroako Parlamentuak gizarte osoari hats ematen dio giza eskubideen defentsa aktiboarekin bat egitera, era horretan askatasun, justizia eta berdintasunaren bideetan barrena aurrera egin ahal izan dezagun, gizarte barne-hartzaile, kohe-sionatu eta parte-hartzaile bat lortzeko.”

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Auzitegi Gorenak N-111 errepideko bide-seinaleak, Zizur Nagusi-ko tartean, elebitan jartzeari buruz emandako epaiari buruzkoa.**IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Auzitegi Gorenak N-111 errepideko bide-seinaleak, Zizur Nagusiko tartean, elebitan jartzeari buruz emandako epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Galdera, Zizur Nagusiari N-111 errepidean dagokion seinalizazio elebidunari buruz Auzitegi Gorenak emandako epaiaren gainekoa.

- Zer dela-eta aurkeztu zen errekurtsua Nafarroako Auzitegi Nagusiak Zizur Nagusiaren N-111ko seinalizazioari buruz emandako epaiaren aurka, era horretan Osoko Bilkuraren erabaki bat urratuz?

- Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak Auzitegi Nagusiaren epai horri buruz?

- Nafarroako Gobernuaren ustez, bere jardunaren helburua interes orokorra izan al da?

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Ondarearen gaineko Zerga kendu edo jaisteari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Ondarearen gaineko Zerga kendu edo jaisteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari

Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak dagokion Batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Espainiako Gobernuko lehendakariorde ekonomikoak adierazpen batzuk egin ditu, eta haietan aitortu du akatsa izan dela ondarearen gaineko zerga kentzea; eta, krisi ekonomikoaren larritasunaz eta hark dirusarrera publikoetan izandako eraginaz jabetu izan balira, ez zutela ondarearen gaineko zerga kenduko.

Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroan ondarearen gaineko zerga kentzea edo 0 tasara murriztea ere akats bat izan al da?

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Estrena 2010 azokari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Estrena 2010 azokari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak dagokion batzordean ahoz erantzun dezan.

Estrena 2010 jaialdia

Zer kontusailletara egotziko da? Zergatik Civivox-etan? Agertokirik egokienak eta teknikoki hobekien ekipatuak al dira? Jaialdi hori bat etorriko al da denboran COFAEk antolatzen duen besteren batekin? Gure Estrena 2010 jaialdian kudeatzaile eta programatzaile guztiak egonen dira, ala agian besteren batera joatekoak dira?

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Lor aintziraren aldeko ingurumen ondorioen adierazpenari buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Lor aintziraren aldeko ingurumen ondorioen adierazpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Lor aintzira dela-eta, aldeko ingurumen-eraginek adierazpena onesterakoan (2009ko irailaren 4ko ebazpen bidez erabakitakoa) Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak kontuan hartu al zuen Jesús María Lekuona jaunak prestatutako txostena, Departamentuaren beraren ekimenez eskaturikoa? Baiezkoan, zehatz bedi zertan gauzatu ziren Departamentuak hartutako neurriak, txosten horretan egiten den honako adierazpen hau dela-eta: "une honetan mehatxu du ontziralakuz hornituriko camping bat eraikitzeke proiektua, kalte larria egingen bailioke bertako faunari eta paisaia-inguruari".

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Nafarroako 2006ko aurrekontuetan Orreagan kulturaren eta turismoaren arloan inbertsioak egiteko aurreikusitako maileguari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako 2006ko aurrekontuetan Orreagan kulturaren eta turismoaren arloan inbertsioak egiteko aurreikusitako maileguari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

2006rako Nafarroako aurrekontu orokorrek 3 milioi euroko kontusaila aurreikusten zuten Orreagarako inbertsio kultural eta turistikoetarako maileguak emateko.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako 2006ko aurrekontuan jasotako mailegua gauzatu al da? Baiezkoan, zer erakunde

gertatu dira hartzaile? Zenbatekoa da interesa, eta zeintzuk baldintzak? Ezezkoan, zergatik ez da gauzatu?

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko zer dela-eta ezin izan den garaiz kitatu mendekotasunari aurre egiteko laguntzarako ezarritako zenbatekoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer dela-eta ezin izan den garaiz kitatu mendekotasunari aurre egiteko laguntzarako ezarritako zenbatekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Jakitun naiz mendekotasunen bat duen pertsona batengatik laguntza jasotzen duten familiei puntualki sartzen zaiela laguntza hori beren banku-kontuan, kasuan kasuko hilabetea bukatu baino lehenago.

Alabaina, ikusi ahal izan da ezen, otsailean, epea amaitu ondoren ordaindu gabe zegoela mendekotasunarengatik laguntzaren kopurua; hori horrela, honako hau jakin nahi nuke:

Zer dela-eta ezin izan da behar zen garaian eta moduan ordaindu mendekotasunarengatik laguntzaren kopurua?

- Mendekotasunen bat duten pertsonak zentro soziosanitario batean dauden kasuetan ere ordainketaren atzerapenik izan al da?

Iruñean, 2010eko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programari jarraikiz 2009an betetako gastuari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programari jarraikiz 2009an betetako gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planak 502.354.319 euroko gastu publikoa dakar, guztira.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Programaren barruan, zein da 2009an Nafarroako Foru Komunitatean guztira exekututako gastua?

2. 2009an eginiko gastutik, zenbat diru jarri du Nafarroako Gobernuak, eta zenbat Europar Batasunak FEADER-en bidez?

3. 2009an eginiko gastuetatik, zenbat diru bideratu da nekazaritzaren sektorearen lehiakortasunari buruzko 1. ardatzera? Zenbat bideratu da FEADER-en 2. ardatzera (garapen iraungarria eta ingurumena errespetatzen duena)? Zein da 3. ardatzera bideratutako diru kopurua? Zein da 4. ardatzera (LEADER) bideratutako diru kopurua? Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuna ardatz bakoitzerako jarritako kopuruak zehaztea nahi nuke.

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, genetikoki eraldatutako artoaren laborantzari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, genetikoki eraldatutako artoaren laborantzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

1.- Genetikoki eraldaturiko 6.235 hektarea artoetatik zer ehuneko dagokie Nafarroako Gobernuak emandako baimenei?

1.1.- Genetikoki eraldaturiko artoaren zenbat bariedade baimendu ditu orain arte Nafarroako Gobernuak?

2.- Genetikoki eraldaturiko artoaren zenbat bariedade hazten edo hazi dira Nafarroan merkataritza-helburuetarako?

3.- Nafarroako Gobernuak egin al du edo eskueran al dauka inolako azterlanik, Biosegurtasunerako Foru Batzordeak baimenduriko arto eraldatutaren bariedadei buruzkorik, edo Nafarroan merkataritza-helburuetarako hazitako genetikoki eraldaturiko artoaren bariedadei buruzkorik, erakusten duenik hektareako errendimendu-hobekuntzak, fitosanitarioen kontsumoaren murriztapena edo ur-kontsumoaren beherakada lortzen dela arto arruntaren bariedadeekin alderatuta? Zein dira?

4.- Zer azterlan, txosten edo analisi egin ohi dira Biosegurtasunerako Foru Batzordeak orain arte emandako baimen bakoitzak osasunerako, elikagaien segurtasunerako eta ingurumenerako dituen balizko arriskuak detektatzeko? Baimen bakoitza eman aurretik egin izan al dira?

4.1. Azterlan, txosten edo analisi horietako bakoitzari buruz, honako datu hauek eskatzen ditugu:

4.1.0. Kasuko azterlan, txosten edo analisiaren egilea eta finantzatzailea.

4.1.1.- Laborategiaren kreditazio eta homologazio teknikoa, bai eta analisi-jardunean erabilitako tekniken ere.

4.1.2.- Kasuko soro eta ekoizpenetan laginak lortzeko protokoloa.

4.1.3.- Baliaturiko teknikak eta eginiko analisisien protokoloak.

4.1.4.- Lurzatiaren kokalekua, ingurunearen deskribapena eta hurbileko laboreak.

4.1.5.- Lote-zenbakia; hazi-kategoria; bariedadea; ekoizlea; hazi ziurtatzearen ardura duen organoa.

4.1.6.- Zer bariedadek sortu dute nahasketa, eta zer nahasketa-mota eta -ehuneko detektatu dira hazietan? Zein da nahasketaren banatze-probabilitatea distantziaren arabera?

4.1.7.- Gutxieneko zer distantzia jo da beharrezko gisa, arto arruntaren bariedadeekin ez nahastea bermatu ahal izateko? Nola kalkulatu da hori?

4.1.8.- Zelaiko azterlanaren iraupena. Zer irizpideren arabera ondorioztatzen da epe hori nahikoa dela?

4.2. Nafarroako Gobernuak aurreikusten al du aldiroko azterlanak egitea osasunerako, elikagai-segurtasunerako eta ingurumenerako arriskuak zehazteko, baimendurikoak eta Nafarroan merkataritza-helburuetarako landuak diren arto-bariedade eraldatuak elikagai-katean sartu eta metatzearekin loturikoak?

5.- Biosegurtasunerako Foru Batzordeak proposaturiko baimenetakoren bat oinarrituta egon al da osasunerako, elikagai-segurtasunerako eta ingurumenerako arriskuei buruz eskatzaileak berak aurkezturiko txostenetan?

6.- Zergatik ezartzen da, Biosegurtasunerako Foru Batzordeak baimenduriko borondatezko askapenei dagokionez, arto arrunta landatuta dagoen beste lurzati batzuekiko 200 edo 220 metroko gutxieneko isolamendu-distantzia errespetatzearen baldintza, eta ITG Agricolak, ordea, soilik 20 metroko gutxieneko aldentze-distantzia gomendatzen du genetikoki eraldaturiko laboreen eta labore arrunten arterako, 98/294/EE Europako Erabakian oinarrituta?

6.1.- Zeri zor zaio irizpide-ezberdintasun hori?

6.2.- Nafarroako Gobernuak inolako azterlanik egin al du, ondorioztatzen duenik 20 metroko distantzia nahikoa dela genetikoki eraldaturiko arto-labore batek arriskurik ez sortzeko osasunerako, elikagai-segurtasunerako, ingurumenerako edo beste arto-labore arrunt batzuekin ausaz nahasteari dagokionez?

7. Biosegurtasunerako Foru Batzordeak emandako baimenetatik zenbat oinarritu dira soil-soilik eskatzaileak berak aurkezturiko txostenetan?

8.- Biosegurtasunerako Foru Batzordearen 5. aktan adierazten dira azterlan baten emaitzak, zeinak ondorioztatzen baitu ez dela inolako eraginik nabaritzen, ez kuantitatiborik ez eta fauna osagariaren bioaniztasunari dagokionez ere, aztertutako arto arrunteko eta genetikoki eraldaturiko arto-soroetan. Azterlan horri dagokionez, honako puntu hauetan eskaturiko informazioa eduki nahi genuke: 4.1.0, 4.1.1, 4.1.2, 4.1.3, 4.1.4, 4.1.5, 4.1.6, 4.1.7, 4.1.8.

9.- Biosegurtasunerako Foru Batzordearen 7. bilkurako aktaren 5. puntuan informazioa ematen da honi buruz: "Monsanto-ren txostena, Espainian

2001ean zehar eginiko saiakuntzetan MON 810 artoaren barietateek zedenari aurre egitearen gaineko fidagarritasun-txostenaren emaitzei buruzkoa". Aktan ez da txosteneko ondorioztapenei buruzko inolako iritzirik adierazten, eta ez da inolako erabakirik hartzen.

9.1. Zer ondorioztatzen du txosten horrek?

9.2.- Azterlan horri dagokionez, honako puntu hauetan eskaturiko informazioa eduki nahi genuke: 4.1.0, 4.1.1, 4.1.2, 4.1.3, 4.1.4, 4.1.5, 4.1.6, 4.1.7, 4.1.8.

9.3.- Nafarroako Gobernuak inolako fidagarritasun-azterlanik egin ala eginarazi al du MON 810

arto-barietateak edo beste edozein arto-barietatek zedenari aurre egiteko gaitasunari buruz? Baiezkoan, horietako bakoitzerako, honako puntu hauetan eskaturiko informazioa eduki nahi genuke: 4.1.0, 4.1.1, 4.1.2, 4.1.3, 4.1.4, 4.1.5, 4.1.6, 4.1.7, 4.1.8.

10.- Zein prozedura eta ezagutza tekniko frogagarritan oinarriturik ebaluatu da Biosegurtasunerako Foru Batzordeak emandako baimenetako bakoitza, arriskuak eta jardueraren jakinarazleak proposaturiko biosegurtasun-neurriak?

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko dermatologiako espezialisten kopuruari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko dermatologiako espezialisten kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

- Dermatologiako zenbat espezialista zegoen Tuterako Reina Sofía Ospitalean 2007, 2008, 2009 eta 2010ean?

- Zer ordutegi-banaketa zeukan fakultatibo horietako bakoitzak?

- Ba al da itxaronzerrendarik espezialitate honetan?

- Nafarroako Gobernuak asmorik ba al du profesionaletako batek erretiroa hartzearen ondorioz geraturiko lanpostu hutsa betetzeko?

Itxaronzerrendarik badago:

- Gaur den egunean zenbat pertsona dago espezialitate honetan Reina Sofía Ospitalean?

- Zer irtenbide eman behar zaio zerrenda horri?

- Itxaronzerrenda arintzeko profesionalik kontratatzeko ba al dago asmorik?

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, azken bost urteotan parke eolikoetan hildako hegaztien kopuruari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, azken bost urteotan parke eolikoetan hildako hegaztien kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Energia garbiak, eta horien artean parke eoliko bidezko energia-sorkuntza, gizartearen zati oso garrantzitsu baten apustua dira.

Parke eolikoak bezalako azpiegiturek zuzeneko eragina izan dezakete galzorian dauden hegaztiengan.

Hauxe jakin nahi nuke:

- Azken bost urteotan, Foru Komunitatearen lurraldean dauden parke eolikoetan zenbat hegazti hil dira? Urtez urte xehakaturiko kopurua nahi nuke.

- Parke eoliko hauetan gertatu al da galzorian dagoen espezieren bateko hegazti baten heriotzarik?

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, sarrío-populazioa jaitsarazi duen keratokonjuntibitis-agerraldia dela-eta hartutako neurriei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, sarrío-populazioa jaitsarazi duen keratokonjuntibitis-agerraldia dela-eta hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Gure erkidegoan sarrío-populazioa jaitsarazi duen keratokonjuntibitis-agerraldia dela-eta, zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak? Sarrío-populazioaren xehakapena urtez urte.

2. Zer egoeratan dago orkatza gaur egun Nafarroan? Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak hura zaindu eta babesteko? Populazioaren xehakapena urtez urte.

3. Zer egoeratan dago basurdea gaur egun Nafarroan? Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak hura zaindu eta babesteko? Populazioaren xehakapena urtez urte.

4. Zer egoeratan dago erbia gaur egun Nafarroan? Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak

hura zaindu eta babesteko? Populazioaren xehakapena urtez urte.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, azken hiru urteotan maila ertaineko eta goi mailako ikasketetan eta lanbide heziketan matrikulatu diren ikasleei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, azken hiru urteotan maila ertaineko eta goi mailako ikasketetan eta lanbide heziketan matrikulatu diren ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Ikasleen jatorriari buruzko galdera

1. Zenbat ikasle izan dira, eta Nafarroako zein eskualdetakoak, azken hiru urteotan matrikulatu direnak maila ertain nahiz goi-mailako irakaskuntzetan, bai eta lanbide-heziketakoetan ere, Iruñeko eta Iruñerriko irakaskuntza-zentroetan?

2. Azken hiru urteotan, zein izan da Iruñeko eta Tuterako campusetako unibertsitate-ikasleen jatorria, Nafarroako eta gure erkidegotik kanpoko zonen arabera adierazia?

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Iruñerrian abiadura handiko trenak ukitutako lursailak urbanizatu eta berrantolatzeko proiektuari buruzkoa.

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztutako galdera, Iruñerrian abiadura handiko trenak ukitutako lursailak urbanizatu eta berrantolatzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin du, Herri Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Urtarrilaren 20an, galdera bat egin zitzaizun, informa zenezan noizko aurreikusten duen Nafarroako

Gobernuak onetsita egonen direla abiadura handiko trenak Iruñerrian eragiten dueneko lursailletako urbanizazio-proiektua eta lurren birzatiketa-proiektua, eta zer epe-aurreikuspen darabilen Nafarroako Gobernuak (begi-bistan dagoenez, ez Sustapen Ministerioak).

Erantzuna ez zenez izan galdeturikoaren araberakoa, berriro ere ekin beharrean gaude:

Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du onetsita egonen direla AHTak Iruñerrian eragina izanen dueneko lursailletako urbanizazio-proiektua eta lurren birzatiketa-proiektua?

Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du urbanizazio-proiektuko obrak egiten direla?

Zer epe aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak gaur egungo trenbide-azpiegiturak okupatzen dituen lursailletako hirigintza-aprobetxamenduak lortu ahal izateko, AHTak Iruñerrian izanen duen geltokiari buruzko Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren garapenean, AHTaren geltoki berriaren eraikuntza finantzatu ahal izate aldera?

Zein epe aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak AHTaren geltokia eraikitzen hasteko?

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Jakako autobiako Izko-Judasen Benta bideuneari buruzkoa.

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztutako galdera, Jakako autobiako Izko-Judasen Benta bideuneari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin du, Herri Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Hasiera batean, 2009ko ekainerako aurreikusiten zen irekiko zela Jacarako autobiaren (A-21)

Izkotik Irunberriko Judasen Bentara bitarteko zatia, Loitiko mendatetik pasa behar izateaz libratuko duena. Gero, irekiera hori 2009ko abendura atzeratu zen, eta geroago, 2010eko martxo honetara arte. Dirudienez, oraindik ere beste atzerapen bat izanen da, 2010eko apirilera bitartekoa. Ez da data zehatzik adierazi hain beharrezkoa den (Loitiko mendatea saihestuko baitu) errepide-zati hau irekitzeko. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

A-21 autobiaren Izko-Irunberriko Judasen Benta zatiaren hasierako proiektuan aurreikusita al zegoen goi-tentsioko linearen nondik norakoa aldatzea? Izan ere, hori da, antza denez, errepide-zati horren irekiera-eguna atzeratzearen arrazoia.

Baldin eta hasierako proiektuan aldaketa hori aurreikusita bazegoen, zer arrazoi direla-eta ez da hori egin obren iraunaldian zehar?

Baldin eta hasierako proiektuan aldaketa hori ez bazegoen aurreikusita, zer arrazoi dela-eta ez zegoen aurreikusita? Eta zein unetan aintzat hartu zuen proiektuak?

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Leozko lurzati-berrantolamenduko obrak bukatutzat emateko arrazoiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Leozko lurzati-berrantolamenduko obrak bukatutzat emateko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zergatik Landa Garapeneko zuzendari nagusiak, 2009ko urriaren 23an, amaitutzat eman ditu Leozko lurzati-berrantolamenduko obrak, baldin eta ez bazen existitzen –eta, momentuz, ez daukagu existitzearen berririk– Ingurumen Lehenaratzeari buruzko Proiekturik eta, beraz, nekez exekutatatu ahal izan bada?

2. Horrez gain, informazioa eskatzen dugu eta, beraz, gastu-kontrola, aglomeratu beroaren 1.440 tonetarako eta sakonune-konponketarako aurrekontu-kontusailei buruzkoa. Bi kontzeptu horiek 163.986,60 euro egiten dute, eta Leozko lurzati-berrantolamenduko proiektuaren zati dira, NA-

5100, NA-5161 eta NA-5110 errepideetako balizko hondamenak konpontzera bideratuak. Aurrekontua egin zenean, hori posibilitate bat zen; orain, ordea, errealitate bat, gutxienez ere bi urtez etengabe izandako kamioi-zirkulazioaren ondoriozkoa, hormigoio-ontzi eta –upelak garraiatzen baitzituzten, obra horretako 100 kilometro bide eraikitze beharrezkoak zirenak.

3. Ez al dagokio Administrazioari kasuko proiektu-aldaketa dokumentu bidez aurkezteko betebeharra, hasiera batean proiektatuaren gainean aldaketak egiten direnean?

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, arte eszenikoak sustatzeko programei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, arte eszenikoak sustatzeko programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltza-

reko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan, Erregelamenduak ezarritako epeetan:

Kultura eta Turismo kontseilariak, aurtengo martxoaren 10ean Kultura eta Turismo Batzordean eginiko agerraldi batean, berak zuzentzen duen Departamentuak aurrean arte eszenikoen alorrean bultzada emanen dien programa batzuk aipatu zituen. Azalpena hagitz orokorra izan zenez, eta programa horiek ez zituenez zehaztu, haien deskribapenean sakondu dezala proposatzen dugu.

Sustapen-programak: “Escenarios”

Nola gauzatuko da programa hau? Zer helburu, ekintza eta aurrekontu izanen ditu programak? Noiz gauzatuko da? Nor dira programaren arduradunak?

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, “Escena” dantza-jaialdiari buruzkoa

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

